



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 16a

26. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarritzko osasun eskualdeko oinarritzko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren ahaleginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aceralia enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arcelor enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko. Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mirandako Mirandako Mirandako Mirandako Mirandako MIR sendagileen proposamenak, eta lan eta soldatetan dauzkaten behin-behineko baldintzak aldatzeko akordioetara irits dadin. Osasun Batzordeak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofia Ospitalean zainketa aringarrietarako unitate bat ezar dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana eta familia uztartzen lagunduko duten neurriak ezar ditzan. Osasun Batzordeak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofia Ospitalean ospitaleratze psikiatrikoko unitate bat ezar dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarritzko osasun eskualdean oinarritzko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren ahaleginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).
- Adierazpen instituzionala, Nafarroako Gobernuak Nafarroaren nortasunaren eta autogobernuaren eta askatasunaren alde deituriko manifestazioarekiko atxikimendua agertzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, martxoaren 15ean "Hobetzearen Egunaren" ospakizun ofiziala ezartzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak Atarrabian edo Uhartan ikastetxe berriren bat egiteko asmoa ote duen, eskola eskualde horretako beharrei erantzuna emateko, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (8. or.).
- Galdera, Gobernuak Odol Bankurako duen etorkizuneko estrategiari buruzkoa, titulartasunari, zuzeneko kudeaketari eta beste organo batzuetarako bankua izateari dagokienez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Lizarrako Ospitaleko zainketa berezien unitate mugikorrerako sendagileak ez jartzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (9. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak barneko mediku egoiliarren (BAME) kolektiboarekin daukan harreman gaizkitua hobetzeko jardueraren bat egin behar ote duen, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egina (10. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakia. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa izendatzen da (11. or.).
- Hauteskundeetako Araubide Orokorriari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena Diputatuen Kongresuan defenditzeko foru parlamentariak izendatzea. Ordezkapenak (11. or.).
- Deialdia, gelazain nagusi lanpostua merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko funtzionarioen artean. Izendapena (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarrizko osasun eskualdeko oinarrizko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren ahaleginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarrizko osasun eskualdeko oinarrizko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren ahaleginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa izapidetzeko onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio

Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osasun Batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

Legebiltzar honetako Erregistrora Altsasuko Udalean hartutako erabaki bat sartu da, parlamentu-talde guztiei entregatu zaiena. Horri dago-kionez, Aralar parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du, akordio horren funtsezko edukian oinarritua:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta gutxieneko duintasuneko osasun laguntza emateko beharrezkoak diren bitartekoak jar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak publikoki aitortzen du Altsasuko oinarrizko osasun eskualdeko oinarrizko laguntzaren taldeko profesionalak egiten ari diren ahalegina, foru administrazioak soluziorik ematen ez duela ikusirik.

Iruñean, 2007ko martxoaren 7an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aceralia enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko.

INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA ETA LAN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak, 2007ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Aceralia enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aceralia enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan Legasako haren jabetzako lurretan industrialde bat sortzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aceralia enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan Legasako haren jabetzako zelaigunean industrialde bat sortzea ahalbidetzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arcelor enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko.

INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA ETA LAN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordeak, 2007ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Arcelor enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arcelor enpresarekin behar diren urratsak egin ditzan haren jabetzako lurzorua jabari publikoari itzultzeko, industrialde bat sortzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Arcelorrekin behar diren urratsak egin eta buka ditzan, horrela gaur egun erabilerara industrialik ez duen lurzorua berriro ere jabari publikokoa izan dadin, eta bertan industrialde bat sortzea ahalbidetzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du industri lurzoru horretarako sarbide izanen den Lesakako saihesbidearen bigarren fasea sar dezan bere lehentasunezko ekintzen programan eta saihesbide hori eraiki dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da presaz eta behar den jarreraz azter ditzan MIR sendagileen proposamenak, eta lan eta soldatetan dauzkaten behin-behineko baldintzak aldatzeko akordioetara irits dadin.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da presaz eta behar den jarreraz azter ditzan MIR sendagileen proposamenak, eta lan eta soldatetan dauzkaten behin-behineko baldintzak aldatzeko akordioetara irits dadin".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko martxoaren 2ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofía Ospitalean zainketa aringarrietarako unitate bat ezar dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofía Ospitalean zainketa aringarrietarako unitate bat ezar dezan".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, eraba-

ki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko martxoaren 2ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana eta familia uztartzen lagunduko duten neurriak ezar ditzan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lana eta familia uztartzen lagunduko duten neurriak ezar ditzan".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, eraba-

ki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko martxoaren 2ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofía Ospitalean ospitaleratze psikiatrikoko unitate bat ezar dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Reina Sofía Ospitalean ospitaleratze psikiatrikoko unitate bat ezar dezan".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, eraba-

ki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko martxoaren 2ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarrizko osasun eskualdean oinarrizko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren aha-
leginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko.**

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko oinarrizko osasun eskualdean oinarrizko osasun laguntzaren taldean hutsik dauden bi lanpostuak berehala bete ditzan, eta behar diren aha-
leginak egin ditzan osasun laguntza duina emateko".

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2007ko martxoaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen instituzionala, Nafarroako Gobernuak Nafarroaren nortasunaren eta autogobernuaren eta askatasunaren alde deituriko manifestazioarekiko atxikimendua agertzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Gobernuak Nafarroaren nortasunaren eta autogobernuaren eta askatasunaren aldeko manifestazio baterako dei egin du. Manifestazio hori Iruñean egingen da, 2007ko martxoaren 17an.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren indarraldiaren hasieratik hogeita bost urte igaro izana ospatzen ari garen garai honetan, Nafarroako Parlamentuak, zeinak, aipaturiko lege organikoaren arabera, Nafarroako herria ordezkatzeko baitu, Nafarroako Gobernuak eginiko deialdiaren helburuekiko adostasuna adierazten du, bat baitatuz konpromiso instituzional batekin; alegia, foru araubidea, bere erakundeak eta Nafarroari Konstituzioak eta gure

antolamendu juridikoak aitortzen dioten eskumen-sistema historikoa betiere defendatzekoarekin. Hori horrela,

Erabaki du:

1. Nafarroaren nortasunaren eta autogobernuaren eta askatasunaren alde Nafarroako Gobernuak 2007ko martxoaren 17rako deituriko manifestazioari atxikitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herritarrak gonbidatzen ditu beren erakundearen eta autogobernu-araubidearen aldeko manifestazioarekin bat egin eta bertan parte hartzera, guztion askatasunaren eta Nafarroaren garapen eta etorkizunaren defentsaren agertarazpen gisa".

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen instituzionala, martxoaren 15ean "Hobetzearen Egunaren" ospakizun ofiziala ezartzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak erabaki du ospakizun ofizial bat ezartzea, "Hobetzearen Eguna", urte bakoitzeko martxoaren 15ean egitekoa. Egun horretan, Parlamentu honek adierazpen instituzio-

nal bat egingen du, Nafarroa foru erkidego historiko, berezko eta bereizitza baieztazen duen proiektuarekiko konpromisoa berritzearen erakusgarri eta bizikidetzaren agerpen izan dadin".

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak Atarrabian edo Uharten ikastetxe berriren bat egiteko asmoa ote duen, eskola eskualde horretako beharrei erantzuna emateko.*FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak Atarrabian edo Uharten ikastetxe berriren bat egiteko asmoa ote duen, eskola eskualde horretako beharrei erantzuna emateko. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aur-

keztu du, Hezkuntza kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Azkenaldi honetan, Burlatako Askatasuna ikastetxeko ikasleen kopuruak gora egin du eta, horren ondorioz, errealitate bat da edozein ikaske-ta-jarduerarako tokia falta dela. Gainera, tokirik eza larriagotu egingen du ikasle-matrikulazioak pairatzen duen etengabeko gorakadak.

Horregatik guztiagatik, parlamentu-talde honek hauxe jakin nahi du:

Hezkuntza Departamentuak Atarrabian edo Uharten ikastetxe berriren bat egiteko asmorik al du, eskola eskualde horretako dotazio-beharrei erantzuna emateko? Hezkuntza Departamentuak erabaki al du berehalakoan nola arinduko duen Burlatako Askatasuna ikastetxeko irakaskuntza-jarduerak pairatzen duen toki-faltaren arazo hori?

Iruñean, 2007ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Gobernuak Odol Bankurako duen etorkizuneko strategiari buruzkoa, titulartasunari, zuzeneko kudeaketari eta beste organo batzuetarako bankua izateari dagokienez.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egindako galdera, Gobernuak Odol Bankurako duen etorkizuneko strategiari buruzkoa, titulartasunari, zuzeneko kudeaketari eta beste organo batzuetarako bankua izateari dagokienez. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak, Odol Bankurako duen etorkizuneko estrategian, asmorik al dauka haren titulartasun publikoari eta zuzeneko kudeaketari eusteko, eta haren esparrua hedatzeko, horrela hezur-ehunak, korneak eta zilbor-hestea, besteak beste, barruan hartzeko?

Iruñean, 2007ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Nafarroako Gobernuak Lizarrako Ospitaleko zainketa berezien unitate mugikorrerako sendagileak ez jartzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Lizarrako Ospitaleko zainketa berezien unitate mugikorrerako sendagileak ez jartzeko dauzkan arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer arrazoi dela-eta Nafarroako Gobernuak ez du sendagilez behar bezala hornitu nahi Lizarrako Ospitaleko zainketa berezien unitate mugikorra? Izan ere, gaur egun ospitale horretako fakultatiboen plantilla da unitate horretaz aldi berean ardura-tzen dena, eta horrek, logikoa denez, bi zerbitzuen kalitateari kalte egiten dio.

Iruñean, 2007ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak barneko mediku egoiliarren (BAME) kolektiboarekin daukan harreman gaizkitua hobetzeko jardueraren bat egin behar ote duen.

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen izapidetzeko onartzea foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztan jaunak egindako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak barneko mediku egoiliarren (BAME) kolektiboarekin daukan harreman gaizkitua hobetzeko jardueraren bat egin behar ote duen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak asmorik al du barneko mediku egoiliarren (BAME) kolektiboarekin daukan harreman gaizkitua hobetzeko urratsen bat egiteko, eta lanbidearen baldintzak hobetze aldera haiek eginiko proposamenak onartzeko?

Iruñean, 2007ko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako erabakia. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa izendatzen da.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko martxoaren 15ean egindako bileran, Javier Eneriz Olaechea jauna izendatu du Nafarroako Foru Komunitateko ararteko, sei urterako, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruz-

ko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikularekin bat eta beharrezko gehiengoarekin.

Iruñean, 2007ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena Diputatuen Kongresuan defenditzeko foru parlamentariak izendatzea.

ORDEZKAPENAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eledunek idazki bana aurkeztu dute. Bertan eskatzen dute haiek proposatutako eta Mahaiak, 2005eko ekainaren 13ko erabakiaren bidez, Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena Diputatuen Kongresuan defenditzeko hautatu zituen foru parlamentariak ordezkatzea. Hori horrela, Erregelamenduko 204. artikuluari eta Mahaiak 2005eko ekainaren 6ko erabakiaren bidez onetsiriko arauari jarraituz, hona ERABAKIA:

1. Carlos García Adanero jaunaren ordez Luis Valero Erro jauna eta Elena Torres Miranda andre-

aren ordez Fernando M.^a Puras Gil jauna hautatzea Hauteskundeetako Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko lege proposamena Diputatuen Kongresuan defenditzeko. Hori dela eta, hauek dira Diputatuen Kongresuan lege proposamena defendituko duten foru parlamentariak:

- Miguel José Izu Beloso jauna
- Luis Valero Erro jauna
- Fernando M.^a Puras Gil jauna

2. Erabaki hau Diputatuen Kongresuko Mahairi igortzea, bai eta Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eledunei eta interesdunei ere.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Deialdia, gelazain nagusi lanpostua merezimenduen lehiaketa bidez betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Gelazainen Kidegoko funtzionarioen artean.

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko martxoaren 12an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Gelazainen kidegoko funtzionarioen artean Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren lanpostua betetzeko merezimenduen lehiaketa bukatu da. Horretarako deialdia 2006ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Epaimahai kalifikatzaileak gainditu dutenen zerrenda eman du, eta hura ikusita eta deialdiko 7. oinarrian ezarritakoa betez, ERABAKI DA:

1. Gelazainen kidegoko funtzionarioen artean Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren lanpostua betetzeko merezimenduen lehiaketako

epaimahai kalifikatzaileak bidali duen zerrendaren jakitun dagoela adieraztea. Gainditu dutenen zerrenda hori 2007ko martxoaren 1eko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Antonio Ansorena Urriza jauna Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi izendatzea sei urteko eperako. Interesdunak hamar egun naturaleko epea izanen du, erabaki hau jakinarazten zaienetik aitzina, burutzaren jabetza hartzeko

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	